



INFORMAZIO ORRIA

Oinordetzak (bide telematikoz) (herentziak, legatuak, etab.)

Noiz aurkeztu daiteke Zergabidez?

Oinordetzen gaineko zergari lotutako edozein egitate bide telematikoz, Zergabide plataforma erabilia, aurkez daiteke. Hala ere, **ezingo da bide telematikoz aurkeztu** ondoko zerga egitate hauetan:

- **Eskritura publiko** batean dokumentatu denean.
- **Usufruktua amaitzen** denean.
- **Ibilgailu** bat **eskuratzea** denean.

Hiru kasu horietan, nahitaezkoa izango da paperean aurkeztea.

- ✓ *OHARRA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekin hitzarmena formalizatu duten kolektiboetako subjektuei ez zaie murrizketa hori aplikatuko.*

Nork aurkeztu behar du? (2017-12-30etik aurrera sortutako zerga egitateak)

1. Ohiko bizilekua Espainian duten **oinordeko edo/eta legatudunek**, baldin eta kausatzailearen (hildakoaren) ohiko bizilekua Gipuzkoan badago sortzapean egunean (normalean, heriotza eguna).

Oro har, **Gipuzkoako araudia** aplikatuko da (3/1990 FA, urtarrilaren 11koa). Hala ere, **Estatuko araudia** aplikatuko da, eta ez Gipuzkoakoa, baldin eta kausatzaileak (hildakoak) ohiko bizilekua Gipuzkoan badu sortzapean egunean, baina zergaren sortzapean egunaren aurreko 5 urteetako denboraldian egun gehiago pasa baditu lurralde erkidean.

2. Ohiko bizilekua **Gipuzkoan** duten **oinordeko edo/eta legatudunek**, baldin eta kausatzailearen (hildakoaren) ohiko bizilekua atzerrian badago sortzapean egunean (normalean, heriotza eguna).
3. Oinordeko edo/eta legatudunak **atzerrian** badu ohiko bizilekua, atalarekin kontsulta egin aitorpena aurkeztu behar duen ala ez jakiteko (943 113 000).

Zenbat denbora daukazu aitorpena aurkezteko?

Urte bat sortzapean egunetik (normalean, heriotzaren egunetik) kontatzen hasita. Ezin da luzapenik eskatu.

Zein pauso egin behar dira?

1. Sinadura elektronikoa:

670 eredia Zergabidea plataformaren bidez aurkezteko, beharrezkoa izango da gako operatiboa, BaKQ edo ziurtagiri digitala erabiltzea.

Kontuan izan oinordeko guztien oinordetza-zerga aurkezteko, bakoitzak bere sinadura elektronikoa izan beharko duela, edo sinadura elektronikoa daukan hirugarren bati ordezkari eman izana.



2. Bildu itzazu ondoko agiriak zure ordenagailuan:

- ❖ **Oinordetza jasotzen edo zerrendatzen duen jatorrizko dokumentu pribatuaren kopia, adierazten:**
 - Ondasun eta eskubide bakoitzari esleitu zaion balio erreala
 - Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainagiriaren zenbakia eta oinordetzan sartu diren ondasun higiezinaren erreferentzia katastrala
- ❖ **Kausatzailearen eta oinordekoen/legatudunen nortasun agiriaren fotokopia.**
- ❖ **Kausatzailearen heriotza agiriaren fotokopia** (Erregistro Zibilak luzatu behar du agiria).
- ❖ **Azken Borondateko Egintzen Erregistro Orokorrak emandako ziurtagiriaren fotokopia.** Ziurtagiria eskatzeko 790 ereduia bete eta aurkeztu behar da. 790 ereduia <http://www.mjusticia.es> helbidetik jaitsi daiteke, "Herritarrarentzako Arreta" apartatuan sartuta eta "Izapide Pertsonalak" aukeratuta. Era berean, zure eskaeraren tramitazio elektronikoa egin daiteke (ikus atal bera).
- ❖ **Testamentuko xedapenen fotokopia, halakorik balego, edo horien ezean, oinordekoen deklarazioarena.** Testamenturik gabeko oinordetzaren kasuan, oinordekoen deklarazio judiziala egin gabe badago edo ezaguntasun-agiria eman gabe egonez gero, ustezkoen zerrenda bat aurkeztuko da kausatzailearekin (hildakoarekin) duten ahaidetasuna adierazita.
- ❖ **Zerga honengatik salbuespenen bat edo murrizpenen bat aplikatuz gero, araudiak propio ezartzen dituen baldintzak bete izanaren frogagiriak aurkeztu beharko dira:** ahaidetasunaren egiaztagiria (hala nola, familia liburua), elbarritasun egiaztagiria, errolda agiria, etab.
- ❖ **Beste agiri batzuk:**
 1. Dokumentuko higiezinaren deskribapena eta titulua zehazten duten eskritura publikoen fotokopia. Aurkezten diren agiri publikoetan ondasun eta eskubideen deskribapena eta titulua jasota daudenean, ez da horren beharrik izango.
 2. Finantza entitateetan irekitako kontuetako saldoak heriotzaren egunean.
 3. Burtsan kotizatzen duten baloreen saldoa heriotzaren egunean.
 4. Burtsan kotizatzen ez duten entitate juridikoen kapitalean dauden partaidetzen balio teorikoa.
 5. Kenkaridunak diren karga, zor eta gastuen frogagiriak.
 6. Gainontzeko kasuetan, ondasun eta eskubideen balioaren agiria.

3. Sartu Zergabidea plataformara:

Sartu plataforman, identifikatu zure sinadura elektronikoaren bidez eta sartu 67x ereduari.

https://zergabidea.gipuzkoa.eus/WAS/HACI/HGFZergaBideaWEB/login?locale=eu_ES

4. Bete 67x ereduia horrela:

- ❖ **Subjektu pasiboa:** oinordetza jasotzen duenaren datuak
- ❖ **Kausatzailea:** hildakoaren datuak
- ❖ **Ordaindu beharreko kuota:** 3/1990 Foru Arauan ezarritako eskalarekin kalkulatzen da, beti heriotza dataren arabera.
- ❖ **Aurkeztu:** Lauki guztiak bete ondoren, sakatu **aurkeztu** botoi urdina ordaintzeko eta dokumentazioa eransteko.



5. Eraitza ordaintzekoa bada, egin ordainketa-pasabidearen bidez:

Autolikidazioa ez da aurkeztuztat joko harik eta diru-sarrera bitarteko elektronikoen bidez egin arte, **ordainketa-pasabidea** erabilita. Kontuan izan ordainketa-modalitate hori banku-erakunde jakin batzuetako bezeroa bazara soilik erabil daitekeela.

6. Erantsi agiri guztiak aplikazioaren bidez:

OHARRA: ODZk ez du zergapetzen, ez Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateen (BGAE) bidez jasotako kopuruak ezta pentsioen planekin kobratzen direnak ere (biek tributatuko dute PFEZn).